



2011ko MAIATZAREN 9ko HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, ZERBITZU-EGINKIZUNEAN BETETZEKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAKO ZENBAIT LANPOSTU DEITZEN DITUENA ETA HEZKUNTZA IKUSKARITZAN LANPOSTU BATZUK BEHIN-BEHINGOZ BETETZEKO ORDEZKOEN ZERRENDA BAT OSATUKO DELA ARGITARA EMATEN DUENA.

2002ko ekainaren 18ko aginduak, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenak (2002/07/2ko EHAA) , hirugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera, behin-behingo, zerbitzu-eginkizunean, Hezkuntza ikuskarien Kidegora sartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten funtzionario irakasleekin, merezimenduen lehiaketaren bidez alde aurretik selekzionatuz eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitatearen printzipioei kasu eginez beteko dira Hezkuntza Ikuskaritzaren plantilan gerta daitezkeen lanpostu hutsak eta ordezkapenak.

Lanpostuetan jarduteko aparteko era bat da zerbitzu-eginkizuna. Azaroaren 7ko 16/1997 legearen bidez aldatzen den uztailaren 6ko 6/1989 legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 54. artikuluan eta, ordezeko eran, irailaren 12ko 170/2006 dekretuaren bidez aldatzen den urriaren 13ko 190/2004 dekretuak, Administrazio Publikoetako pertsonal funtzionarioaren lanpostuak hornitzeko araudia onartzen duenak, arautzen dute.

Ebazpen honek ondorengo puntuak ditu helburu:

Lehena: lanpostu huts bat bete behar izatea, haren titularra ordezkatzeko. Deitutako lanpostua deialdi honen hirugarren A oinarrian agertzen da.

Bigarrena.- Datorren 2011/12 ikasturtearen hasieran edo ikasturte horretan zehar beste erretiro batzuk gerta daitezkeela kontuan hartuta, Hezkuntza Ikuskaritzan zenbait lanpostu deitzea, 2012/13 ikasturteak bukatu arte zerbitzu-eginkizunean betetzeko. Deitutako lanpostuak deialdi honen hirugarren B oinarrian adierazten direnak dira. Lanpostu horietarako zerbitzu-eginkizuna titularrak erretiroa benetan hartzearen menpe egongo da. Halaber, hirugarren B oinarrian deitutako lanpostuen kopurua gutxitu ahal izango da, 2011ko abuztuaren 31tik aurrerako ondorioekin borondatezko erretiroa eskatu duten ikuskariek aurkeztutako gorako errekurtsioak aintzat hartu izanaren ondorioz.

Hirugarrena. Ordezkoen zerrenda bat osatzea, lanpostu huts berriak edo datozen bi ikasturteetan (2011/12 eta 2012/13) gertatuko diren ordezkapenak, lanpostuen titularrenak, behin-behingo betetzeko. Ebazpen honen hamargarren oinarrian arautzen da zerrenda hori osatu eta kudeatzeko era.

Edonola ere, 2011/12 ikasturtean izango diren lanpostu huts berriak edo ordezkapenak behin-behingo betetzeko, ordezkapenak egiteko lehenik eta behin deituko zaie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko uztailaren 15eko ebazpenaren bidez argitara emandako zerrendako ordezkoei.

2011/2012 ikasturtearen bukaera arte iraungo dute selekzionatuak izango diren eta Hezkuntza Ikuskaritzara sartuko diren pertsonen zerbitzu-eginkizunak eta, luzatzeko, era positiboan baloratu beharko da haien ikuskaritza-jarduera. Edonola ere, titularren ordezkapenarengatik hutsik dagoen lanpostuan, titularra itzultzeak zerbitzu-eginkizunaren bukaera ekarriko du.

Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko aukeratze-prozesuaren ebazpenak bukaera emango die lanpostu hutsak betetzeko Hezkuntza Ikuskaritzan dauden zerbitzu-eginkizunei.

Halaber, bukaera emango zaie Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzuko eta Hezkuntza Ikuskarien Kidegoetako funtzionario irakasleen arteko lekualdatze-lehiaketari buruzko ebazpenak eragin ahal dituen zerbitzu-eginkizun horiei. Kasu hauetan Hezkuntza Ikuskaritzan



zerbitzuak denbora gutxiago eman dituzten horiei emandako zerbitzu-eginkizunek bukatuko dute.

Azkenik, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa-arrazoiengatik, betetzeko prozesu honi buruzko behin-betiko ebazpena argitara eman ondoren, berehala bilera bat deituko da, zehazten diren toki eta orduan (uztailaren hasieran seguru asko).

OINARRIAK

Lehena. Prozedura.

Ebazpen honen bidez hasiera ematen zaio Hezkuntza Ikuskaritzan huts dauden lanpostuak behin-behingo, zerbitzu-eginkizunean, betetzeko prozedurari, 2002ko ekainaren 18ko aginduak xedatutakoaren arabera. Deitutako lanpostuak deialdi honen hirugarren A eta B oinarrian agertzen direnak dira.

Halaber, prozedura honen bidez hautagaien zerrenda bat osatzeko prozesua deitzen da, 2011/12 eta 2012/13 ikasturteetan Hezkuntza Ikuskaritzan hutsik geratuko diren lanpostuak behin-behingo betetzeko. Deialdi honen hamaikagarren oinarrian zehazten dira hautagaien zerrenda horren osaketa, kudeaketa eta iraupena.

Bigarrena. Ondorengo baldintzak betetzen dituztenek hartu ahal izango dute deialdi honetan parte:

- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetakoren batean karrerako funtzionarioa izatea, gutxienez sei urteko antzinatasunarekin.
- Zerbitzu aktiboan jardutea eta irakasle gisa sei urteko esperientzia, gutxienez, egiaztatzea, hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten edozein ikastetxe eta mailatan.
- Doktorearen, lizentziatuaren, arkitektoaren, ingeniariaren, graduaren edo beste titulu baliokide batzuk izatea edo emateko tasak ordaindu izana.
- Indarreko legeriaren arabera 2. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak betetzeko gai izatea, HE2 indarrean dagoen lanpostuetan.

Hirugarrena. Deitutako lanpostuak:

A. Haren titularra ordezkatzeko lanpostua:

Bizkaiko lurraldea

- Ikuskari lanpostu 1, gainditutako derrigortasun-data duen 2. hizkuntz eskakizunarekin.

B. Titularren erretiroarengatik datorren ikasturtean hutsik gera daitezkeen lanpostuak. Lanpostu horietan titularrak erretiroa hartzearen menpe egongo da zerbitzu-eginkizuna.

Bizkaiko lurraldea

- 4 ikuskari lanpostu, gainditutako derrigortasun-data duen 2. hizkuntza eskakizunarekin.

Gipuzkoako lurraldea (Donostiako egoitza)

- Ikuskari lanpostu 1, gainditutako derrigortasun-data duen 2. hizkuntz eskakizunarekin.

Gipuzkoako lurraldea (Eibarko egoitza).

- 2 Ikuskari lanpostu, gainditutako derrigortasun-data duen 2. hizkuntz eskakizunarekin.



Laugarrena. Lehenetasunak.

Hirugarren A oinarrian deitutako lanposturako lehenetasunak:

- Bizkaiko 1. lanposturako (gainditutako HE2):
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Haur Hezkuntzan, Eskolaurrean, Lehen Hezkuntzan edo OHOn.

Hirugarren B oinarrian deitutako lanpostuetarako lehenetasunak.

- Bizkaiko 1. lanposturako (gainditutako HE2).
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Haur Hezkuntzan, Eskolaurrean, Lehen Hezkuntzan edo OHOn.
- Bizkaiko 2. lanposturako (gainditutako HE2).
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan.
- Bizkaiko 3. lanposturako (gainditutako HE2).
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Haur Hezkuntzan edo Eskolaurrean
- Bizkaiko 4. lanposturako (gainditutako HE2).
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Haur Hezkuntzan edo Eskolaurrean
- Gipuzkoako 1. lanposturako (Donostiako egoitza) (gainditutako HE2).
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Haur Hezkuntzan, Eskolaurrean, Lehen Hezkuntzan edo OHOn.
- Gipuzkoako 1. lanposturako (Eibarko egoitza) (gainditutako HE2).
Lehen lehenetasuna: Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, DBHko 3 eta 4. garren kurtsoan, Batxilergoan, BBBn edo UBIn.
Bigarren lehenetasuna: Ingeleseko edo Frantseseko espezialitatea izatea.
- Gipuzkoako 2. lanposturako (Eibarko egoitza) (gainditutako HE2).
Gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, irakasle gisa, Haur Hezkuntzan, Eskolaurrean, Lehen Hezkuntzan edo OHOn

Bosgarrena. Dokumentazioa.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Langileriaren Kudeaketarako zuzendariarentzako eskaera, exijitutako baldintzak eta lehenetasunak egiaztatzeko dokumentazioa, memoria eta alegatutako merezimenduak aurkeztu beharko dituzte, oinarri hauen ondoko baremoan eta oharretan zehazten diren argibideen arabera, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 38.4. artikuluan xedatzen duen edozein erregistroan.

Idazkian eskatutako lanpostuen lehenetasun-ordena adierazi beharko dute eta A oinarriaren lanpostua eta hirugarren B oinarriaren lanpostuak globalki aipatuko dituzte.

Eskaeran agertzen diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta adierazten diren arren, behar bezala egiaztatzen ez direnak ere. Eskaerak aurkezteko epeak bukatu arte hobetutako merezimenduak besterik ez dira baloratuko; gainontzekoak, ez. Bidaltzen diren fotokopia guztiek konpultsatzeko eginbideekin agertu beharko dute.

Seigarrena. Aurkezteko epea.



2011ko maiatzaren 10etik 20ra bitartekoa izango da eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea. Eskaera, memoria eta dokumentazioa aurkezteko epea ezin izango da luzatu. Eskaera, memoria eta dokumentazioa zuzentzeko ez da inolako eperik emango.

Zazpigarrena. Aukeratze-batzordea.

Ondorengo kideek osatuko duten batzorde bat eratuko da, lehiatzaileek alegatutako merezimenduak baloratzeko:

- Hezkuntza sailburuordeak edo eskuordetzen duen pertsonak, batzordeburu gisa jardungo duenak.
- Hezkuntza ikuskari nagusiak.
- Ikuskari zentral batek.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzako teknikari batek, idazkari gisa jardungo duenak.

Halaber, sektorean ordezkariak dituzten sindikatuek hitza, baina ez botorik, izango dute batzordean.

Zortzigarrena. Zerbitzu-eginkizunak ebaztea.

Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak, aipatutako batzordearen proposamenez, ebatziko du zerbitzu-eginkizuna.

Hautagaiek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, hirugarren oinarrian adierazitako lehentasunak kontuan hartuta, merezimenduen barematzea eta, behar izanez gero, elkarrizketa egin ondoren, deialdiaren behin-behineko ebazpena Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Sailaren web orrian emango da argitara. Orduan hiru laneguneko epe bat irekiko da, erreklamazioak egiteko. Selekzionatua izateko, eman daitekeen puntuazioaren % 50, gutxienez, lortu behar da, memorian eta elkarrizketan.

Erreklamazio horiei kasu eginez, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak argitara emango du behin-betiko esleipenari buruzko ebazpena, zerbitzu-eginkizunean, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Sailaren web orrian argitara eman denez. Gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lanposturen bat behin-behingo zerbitzu-eginkizunean esleitzen zaien hautagaiek uko egin ahal izango diote, betiere uko egite hori behin-betiko esleipenaren ebazpena eman aurretik aurkezten bada. Kasu horietan, lanpostua hurrengo hautagaiari esleituko zaio, lehentasunen eta hornitzeko prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.

Bederatzigarrena. Administrazio-egoera.

Selekzionatutako karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie, 2012/13 ikasturteak bukatu arte. Luzatzeko, ezartzen den prozeduraren bidez era positiboan baloratu beharko da ikuskari gisa egin duen lana.

Zerbitzu-eginkizuna lanpostuaren titularraren ordezkapena betetzeko eman den egoeretan, titularra lanean berriro hasten denean bukatuko du zerbitzu-eginkizunak.

Edonola ere, Autonomia Erkidego honetako Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko hurrengo deialdia ebazten denean bukatuko dute zerbitzu-eginkizunak.

Halaber, Hezkuntza Administrazioaren Zerbitzuko Ikuskarien eta Hezkuntza Ikuskarien Kidegoetako funtzionario irakasleen arteko lekualdatze-lehiaketari buruzko ebazpenak eragin



ahal dituen zerbitzu-eginkizun horiek bukatuko dute. Kasu horietan Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak denbora gutxiago eman dituztenei emandako zerbitzu-eginkizunek bukatuko dute.

Hamargarrena. Ordezkoen zerrenda eratu eta kudeatzea.

Hurrengo bi ikasturteetan huts geratu ahal diren Hezkuntza Ikuskaritzako beste lanpostu batzuetako hautagaiak libre izatea edo lanpostuetako titularren ordezkapenak betetzea du zerrenda honek helburu.

Horretarako, ordezkoen zerrenda bat osatuko da, deialdi honen bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta memorian eta elkarrizketan exijitutako gutxienezko puntuazioa gainditzen duten hautagaiekin.

2011/12 ikasturtean gertatuko diren lanpostu hutsak edo ordezkapenak behin-behingo betetzeko, lehenik eta behin deituko zaie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2010eko uztailaren 15eko ebazpenaren bidez argitara emandako zerrendako ordezkoei, 2010eko maiatzaren 20ko ebazpenak hamaikagarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Deialdi honen ebazpenarekin osatuko den ordezkoen zerrenda ordenatzeko irizpideak:

Ordezkoen zerrenda bakarra sortuko da, hornikuntza-prozesuan lortutako puntuazioaren guttizkoaren arabera ordenatuko dena.

Lanpostu huts bat edo ordezkapen bat bete behar izanez gero, puntuazio gehiena duen, libre dagoen eta bete beharreko lanpostuaren titularraren irakaskuntza-esperientzia edota espezialitatea duen hautagaiari deituko zaio. Ikuskari nagusiak Langileriaren Kudeaketarako zuzendariari txosten bat helaraziko dio, bete beharreko lanpostuaren titularraren izena eta lanpostu horren ezaugarriak zehaztuko dituen.

Baldintza horiek betetzen dituen hautagairik izan ezean, zerrendara joko da eta libre dagoen zerrendako lehenengoari eskainiko zaio ordezkapena. Puntuazioaren guttizkoan bi hautagairen edo hautagai gehiagoren artean berdinketa suertatuz gero, baremoaren atal bakoitzeko puntuazioaren arabera hautsiko da berdinketa, agertzen diren ordenaren arabera. Berdinketak jarraituz gero, azpial desberdinetan lortutako puntuazioari begiratuko zaio, baremoan agertzen diren ordenan.

Ordezkoen zerrendak funtzionatzeko era:

Zerbitzuak ematen dituen lurralde berean lanpostu huts bat betetzera deituz gero lanpostu huts horri uko egiten bazaio, hautagaia zerrendatik at geratuko da. Edonola ere, ordezkoen zerrenda osatzen duten eta zerbitzuak Gipuzkoako lurraldean ematen dituzten selekzionatu horiek uko egin ahal izango diete Eibarren egoitza duten Ikuskaritzako lanpostu huts horiei. Kasu hauetan uko egiteak ez du zerrendatik at geratzea ekarriko.

Zerbitzuak ematen dituen ez den lurralde batean lanpostu huts bat betetzera deituz gero, lanpostu huts horri uko egiteak ez du zerrendatik at geratzea ekarriko.

Ordezkoen zerrenda hau bi ikasturtetan, 2011/12 eta 2012/2013, egongo da indarrean eta beste deialdi bat egin beharko da 2012/13 ikasturteak bukatu baino lehenago, edo lehenago, etorkizunari begira egongo diren lanpostu hutsak betetzerik ez badago.

Hamaikagarrena.- Prozeduraren arloan ebazpen honetan arautzen ez diren gaietan, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldatzen duen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak xedatzen duena aplikatu beharko da.

Hamabigarrena. Eskatzaileek emandako datu pertsonalek datu pertsonalen fitxategi automatizatu bat osatuko dute eta deialdi hau kudeatzea izango du fitxategi horrek helburu. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzak du fitxategi horren ardura eta horretara jo



beharko da, sartzeko, zuzentzeko, ixteko eta oposatzeko eskubideak gauzatzeko (Donostia kalea, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eskatzaileek beren datuak deialdi honetan adierazten den eran eta helburuarekin tratatzeko ematen dute espresuki baimena, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian (www.hezkuntza.ejgv.net) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitara emateko ere, deialdiaren tramiteei begira.

Hamahirugarrena. Gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeak 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 9/9 de mayo de 2011

LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA.

Juan Manuel ARAMENDI ARTEAGA

ERANSKINA

BAREMOA: 30 PUNTU, GEHIENEZ ERE

Kontzeptuak		Puntuazio partziala	Gehienezko puntuazioa
1. ESPERIENTZIA PROFESIONALA			6
1.1	Zuzeneko irakasle gisa jardun izana hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten edozein ikastetxe eta mailatan, esperientzia hori baldintza gisa exijitutako sei urte baino gehiagokoa bada.	0,04 puntu hilabeteko	4
1.2	Hezkuntza ikuskari gisa emandako zerbitzuak	0,10 puntu hilabeteko	3
1.3	Laguntza-zerbitzuetan emandako zerbitzuak: PAT, CEIDA/INGURUGELA, BERRITZEGUNEA, ISEI-IVEI edo IDC, edo beste hezkuntza-administrazio bateko laguntza-zerbitzuetan.	0,03 puntu hilabeteko	2
1.4	Hezkuntza Administrazioan beste lanpostuetan emandako zerbitzuak, 26. mailako edo 26. mailatik gorako lanpostuetan, alegia.	0,01 puntu hilabeteko	2
2. ZUZENDARITZA-KARGUAK			5
2.1	Ikastetxe publiko bateko zuzendari-karguan jardun izana.	0,06 puntu hilabeteko	4
2.2	Laguntza-zerbitzuetan: PAT, CEIDA/INGURUGELA, BERRITZEGUNEA, ISEI-IVEI edo IDC, edo beste hezkuntza-administrazio bateko laguntza-zerbitzuetan, zuzendari-kargua bete izana.	0,04 puntu hilabeteko	2
2.3	Ikastetxe publiko batean idazkari edo ikasketa-buruaren, egunez edo gauez, eta zuzendari albokoaren (zuzendariordea) kargua bete izana.	0,02 puntu hilabeteko	2
3. MEREZIMENDU AKADEMIKOAK			4
3.1	EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren azken LEP gainditu izanagatik.		2
3.2	Katedraduna izateagatik.		1
3.3	Doktorearen titulua izateagatik.		1
3.4	Baldintza gisa alegatutakoak ez diren beste unibertsitate-titulazio batzuk izateagatik. Unibertsitate-titulazioak, erdi mailakoak edo diplomaturak, lizentziatura eskuratzeko baliagarri izan baldin badira, ez dira kontuan hartuko.	0,50 puntu zikloko	1



3.5	Atzerriko beste hizkuntza baten ezagutza, gutxienez C2ren baliokidea, egiaztatzeagatik. (lehentasuna duen lanpostuan izan ezik).		1,5
3.6	Atzerriko beste hizkuntza baten ezagutza, gutxienez C1en baliokidea, egiaztatzeagatik. (lehentasuna duen lanpostuan izan ezik).		1
3.7	Atzerriko beste hizkuntza baten ezagutza, gutxienez B2ren baliokidea, egiaztatzeagatik. (Lehentasuna duen lanpostuan, izan ezik).		0,5

4. PRESTAKUNTZA			2
4.1	Ebaluazioari eta hezkuntza-ikerketari, eskola-antolaketaari, ikastetxeen ikuskatzeari eta kalitatea kudeatzeko sistemei lotutako prestakuntza.	0,02 puntu orduko	1
4.2	Curriculum-arloei, oinarrizko gaitasunei eta, oro har, didaktikari, hezkuntza-orientabideari, aniztasunarekiko arretari, tutoretzari, elkarbizitzari eta gatazkak konpontzeari lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1
4.3	Informazio- eta Komunikazio-Teknologiai lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	0,5
			3
5.1	Antolaketaari, ebaluazioari, ikastetxeen ikuskatzeari lotutako txostenak edo irakasleak prestatzeko ikastaroak emateagatik	0,10 puntu orduko	2
5.2	Ebaluazioari eta eskola-ikuskatzeari lotutako argitalpenengatik (ISBNrekin).		2

6. MEMORIA ETA ELKARRIZKETA			10
6.1	Memoria, gehienez ere 10 foliokoa, alde batetik, ikuskaritza-funtzioan jarduteari buruzkoa.	5 puntura arte	5
6.2	Elkarrizketa	5 puntura arte	5



OHARRAK

Lehena: Ohar orokorrak

- Hautagai bakoitzak eskatutako lanpostua edo lanpostuak adierazi behar ditu, lehentasun-ordenaren arabera.
- Baldintza gisa alegatutakoa ez diren unibertsitate-titulazioak egiaztatzeke asmoz, tituluaren eta espediente akademikoaren fotokopia konpultsatuak erakutsi beharko dira.
- Aurkeztutako argitalpenen orijinala bidali beharko da.
- Prestakuntzaren atalean, ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak baloratuko dira, ez besterik. 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroak ez dira barematuko.
- 30 egun hartzen dituen aldia joko da hilabetetzat.
- "Txosten eta argitalpenak " baremoaren 5. atala ez zaizkie txosten eta argitalpen horiek haien lanpostuaren funtzioak gauzatzearan egin dituzten hautagaiei baloratuko.

Bigarrena: Memoria.

Memoriaren alderdi hauek baloratuko dira:

- Eskatutako lanpostuari begira Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioetan jardun izana (puntu 1era arte).
- Azaldutako funtzioak betetzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren eskuduntzak (puntu 1era arte).
- Hezkuntza Ikuskaritzak esku hartzeko normalean erabiltzen dituen prozedurak: bisitak eta txostenak (puntu 1era arte).
- Hezkuntza Ikuskaritzak hezkuntza-erkidegoko sektore desberdinen eskubide eta betebeharrak direla-eta hartu beharreko jarrera (puntu 1era arte).
- Ikastetxeen zuzentasuna, kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren ekarpena (puntu 1era arte).

Hirugarrena: Elkarrizketa.

Bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta memorian exijitutako gutxienezko puntuazioa lortzen duten hautagaiei deituko zaie elkarrizketara; gainontzekoei, ez.

Memorian garatu behar diren alderdiak, batez ere, oinarri izango dituen elkarrizketan hautagaien ondorengo gaitasunak baloratuko dira:

- Hezkuntza ikuskariaren lanpostuan bete behar diren funtzioen ezagutza.
- Ardura eta gaitasun profesionalak.
- Hezkuntza Ikuskaritzan planteatu ahal diren egoera problematikoak kokatu, aztertu eta haiei erantzuna emateko gaitasuna.

Laugarrena: Aukeraketa.

Deitutako lanpostu bakoitzerako aukeraketa egiteko, ondorengo baldintzak hartuko dira kontuan:

- Aukeratua izateko, 2, 5 puntu, gutxienez, lortu behar dira Memorian eta Elkarrizketan.
- Puntuazioaren guztizkoan bi hautagairen edo gehiagoren artean berdinketa suertatuz gero, baremoaren atal bakoitzean lortutako puntuazio handiagoari begiratuko zaio, ordenaren arabera, berdinketa hori hausteko. Berdinketak jarraituz gero, azpiatal desberdinetan lortutako puntuazioari begiratuko zaio, baremoan agertzen diren ordenan.
- Lanpostu bakoitzerako lehentasunak adierazten duenez, lehentasun hori duen hautagaia betiere ez duenaren aurretik egongo da, baremoa alde batera utzita; edonola ere, memorian eta elkarrizketan ezarritako gutxienezko puntuazioa iristen ez bada, ezin izango zaio aukeratu.